

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Basauriko Udala****2020ko ekitaldiko Lan-Eskaintza Publikoa**

Alkateak 2020/002984 Dekretua onetsi du, 2020ko azaroaren 18an. Honelaxe dio bertako testuak:

Lehenengoa: Plantillan emandako aldaketak ikusita, udal arloetako ordezkariak proposatutako langile-premiak aztertuta, eta negozioak kolektiboaren ostean, Udalaren 2020rako lan-eskaintza publikoa onesten da, Erabaki honen eranskinean ezarritakoaren arabera. Hala egiten da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 70. artikuluan, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera. Bestalde, artikuluko horiek biek dioten bezalaxe, enplegu publikorako eskaintza egiten da aurrekontuan diru-kopurua esleitu duten giza baliabideen premiak langile berriekin betetzeko.

Bigarrena: Lan-eskaintza publikoa bat dator 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikuluko langile berrientzako eta barne-sustapeneko txandarako ezarritako irizpideekin.

Hirugarrena: Eranskinean jasotakoak izango dira aipatutako lan-eskaintza publikoan aurreikusitako plazei dagozkien hizkuntza eskakizunak. Hala egingo da, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen V. tituluan (hizkuntza normalizazioari buruzkoa) adierazitakoa betetzeko, eta apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorrira (horrek arautzen du euskararen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan). Halaxe izango da, bestalde, lan-eskaintza publikoaren deialdia plazak, ez lanpostu zuzenak, betetzeko den arren —lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunak Udalaren indarreko lanpostuen zerrendan finkatuta daude, eta bat datoz Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek bere garaian egindako txostenekin—.

Derrigorrezko eskakizuna ezarrita daukaten plazetan (dagokion deialdian zehaztuko da bakoitzaren hizkuntza eskakizuna), nahitaezkoa izango da dagokion hizkuntza eskakizuna izatea plaza eskuratzeko. Kasu horietan, hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da oinarrietan zehaztutako moduan.

Gainerako plazetan, berriz, euskararen ezagutza merezimendu gisa balioetsiko da, eta ehuneko bat esleituko zaio. Hautaketa-prozesuan lor daitekeen gehienezko puntu-kopuru osoa kontuan hartuta, euskararen ezagutzagatiko merezimenduak ezingo du, inolaz ere, %5 baino txikiagoa eta %20 baino handiagoa izan, honako eskala honen arabera:

- 1. eta 2. hizkuntza eskakizunak: %5-%10.
- 3. eta 4. hizkuntza eskakizunak: %11-%20.

Horrela, bada, Giza Baliabideen atalburuak 2020ko azaroaren 11n egindako txostenak ikusita, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan jasotako eskumenak baliatuta, Alkatetza honek zera

XEDATZEN DU:

Lehenengoa: 2020ko ekitaldiko lan-eskaintza publikoa onestea.

Bigarrena: Xedapen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agitaratu dadila agintzea.

Basaurin, 2020ko azaroaren 19an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



ERANSKINA

2020KO EKITALDIKO LAN-ESKAINZA PUBLIKOA

SARBIDE LIBREKO SISTEMA

2018ko ESTATUKO AURREKONTUEI BURUZKO UZTAILAREN 3ko 6/2018 LEGEAREN 19.1.6**ARTIKULUA EKITALDIRAKO FINKATUTAKO BIRJARTZE-TASAREN****ARABERA KALKULATUTAKO PLAZA KOPURUA**

Taldea (7/07 Legearen art.-aren arabera)	Saikapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HH
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: udaltzaina	UDALTZAINA	9	2
AP	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	PEOIA	4	1

2018ko ESTATUKO AURREKONTUEI BURUZKO UZTAILAREN 3ko 6/2018 LEGEAREN 19.1.9**ARTIKULUA EKITALDIRAKO FINKATUTAKO BIRJARTZE-TASAREN****ARABERA KALKULATUTAKO PLAZA KOPURUA**

Taldea (7/07 Legearen art.-aren arabera)	Saikapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HH
A1	Adm. Bereziko Eskala Azpieskala Teknikoa Klasea: goi mailako teknikaria	ADMINISTRAZIO BEREZIKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	4
A2	Administrazio Bereziko Eskala Azpieskala Teknikoa Klasea: erdi-mailako teknikaria	ADMINISTRAZIO BEREZIKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	2
A2	Administrazio Bereziko Eskala Azpieskala Teknikoa Klasea: erdi-mailako teknikaria	ADMINISTRAZIO BEREZIKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	4TP
C1	Administrazio Bereziko Eskala Azpieskala Teknikoa. Klasea: teknikari laguntzailea	ADMINISTRAZIO BEREZIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	2

BARNE-SUSTAPENEN TXANDA

Taldea (7/07 Legearen art.-aren arabera)	Saikapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HH
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	OFIZIAL IGELTSEROA	1	1
C1	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	ZERBITZUZAINA	1	2
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	BRIGADAKO LAGUNTZAILEA	1	1
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	OBREN ZAINDARIA	1	1
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	OFIZIAL GIDARIA	1	1

Deialdi bakoitzean zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedura eta baldintzak.